



KANALAK

Komunikazio kanalari dagokionez, gure enpresak zerbitzua ezagutzera eramateko kanal bat erabiliko du nagusiki: **komunikazio kanala**.

Ohikoa izaten da gaur egun produktu edo eta zerbitzuen salmenta Internet bidez egitea, hauek Internet bidez ezagutzera ematea, horregatik, sare sozialak (Instagram, Twitter...) sortu eta erabiltzeaz gain, webgune bat sortzea erabaki dugu. Bertan gure helbide elektronikoa eta telefonoa bezeroen eskura jarriko ditugu gurekin harremanetan jar daitezten.

Honekin batera, aurrez-aurreko komunikazioa ere bilatzen dugu bezeroekin. Modu honetan, harreman estuagoa lortuko dugu eta elkartutako bezeroen zalantzak eta ekarpenak kontuan hartzeko baliagarria suertatuko zaigula pentsatzen dugu.

Barne komunikazioan, aldizkaria nagusituko da. Bertan, hezigunean egiten ditugun hainbat ekintzen berri emango dugu aldizkari eta albisteen bitartez. Kanpo komunikazioari begira, webgunean plazaratuko dugu aldizkarietan adieraziko dugun berbera, batik bat zer eskaintzen dugun, zer lantzen dugun eta gure heziguneari buruzko pribatutasun nagusiagoa duen informazioa azalerauz.